HAZTE SOCIO/A EN LAS MEJORES CONDICIONES EGIN ZAITEZ BAZKIDE BALDINTZARIK ONENETAN

**Carné Vivienda**

Si has comprado tu vivienda después del 1/1/2008, podéis haceros socios/as de CD Amaya toda la familia por el 1% de su valor.

**Bodas**

Vuestro primer regalo de bodas: una opción para haceros socios/as de CD Amaya por tan solo 250€ cada miembro de la pareja.

**Carné Diez**

Paga la matrícula de entrada multiplicando tu edad x 10 y durante los 10 próximos años, paga la cuota mensual establecida + 10€.

**Carné Dúo**

Ven a través de un/a socio/a y disfruta de Amaya durante un año por un precio muy asequible.



Angel Erro idazlea San Frantzisko, Burlatoko eta Civicaneko liburutegietako taldeetako koordinatzailea da. Bere ustez “loraldi moduko bat” gertatu da euskarazko taldeen artean azken urteotan: “Taldea hauek aspaldian hasi ziren, Zaldiko Maldikon eta beste elkarte batzuetan ere, erdarazko taldeen ildoari jarraikiz. Azken zortzi edo bederatzi urte hauetan taldeen kopurua handitu da eta horretan zerikusirik izan dezakete hainbat udaletan izan ziren aldaketek eta baita abian jarri diren dirulaguntzek ere.”

Zer bilatzen duen irakurleak talde hauetan galdetuta, hau da Errok nabarmentzen duena: “Jende gehiagorekin irakurtzea akuilu moduko bat izaten da irakurzaleentzat. Atsegin da eta gustatu zaizuna eta gustatu ez zaizuna partekatze abagunea. Batzuetan liburu baten inguruan zenuen iritzia aldatzen duzu.”

Civicanen urriaren 10ean eman diote hasiera ikasturteari Aritz Galarragaren ‘Gogoa dut’ lanarekin. Hurrengo hitzorduak dira ‘Bar Gloria’, Nerea Ibarzabalena, azaroaren 7an eta ‘Walden’, Henry David Thoreau-rena, abenduaren 19an.

Arangurengo irakurketa taldea

Ikasturte honetako irakurketa talderik goiztiarrena Arangurengoa izan da. Irailaren 28an hasiera eman zioten denboraldiari Kultur Etxean Uxue Alberdiren ‘Dendaostekoak’ lanarekin. Aurten 26 urte bete dituen Arangurengo Irulegi Euskara taldeak bultzatzen du talde hau, bertako liburutegi publikoaren laguntzaz.

Duela zortzi urte inguru hasi zen biltzen Mutiloan talde hau, hasieran Jon Alonso idazlea koordinatzaile zutela. Mikel, taldeko kide eta koordinatzaileak azaldu digun bezala, talde honetan mota guztietako liburuak hartzen dituzte: “Ez dugu gai berezi bat jorratzen, eleberrri beltza edo itzulpenak, adibidez. Liburutegi publikoen sareak zerrenda bat prestatzen du eta guk hautatzen dugu nahiago dugun liburua. Gero liburutegiak behar ditugun aleak maileguan uzten dizkigu.”

Orain arte Joseba Sarrionandiaren ‘Gizon izoztua’, Uxue Alberdiren ‘Jenisjoplin’ edo Patxi Larrionen ‘Feriartzai-leak’ irakurri dituzte, adibidez.

“Askotan gertatzen da oso irakurketa desberdinak egiten ditugula, eta tarteka idazleak gonbidatu egiten ditugu gure saioetara, posiblea denean. Oso interesgarria da jakitea noiz, nola eta zergatik idatzi zuten lan bakoitza. Lagun giroan irakurtzen eta

Euskarazko IRAKURKETA taldeen loraldia

Ugari dira Ze Berri?-ren esparruan azken urteotan sortu diren irakurketa taldeak. Batzuk Euskara Zerbitzuek edo Liburutegi Publikoek antolatutakoak: Arrosadia, Sanduzelai, Zizur Nagusia, Zaraitzu, Erronkari, Uharte, Barañain, Antsoain, Aurizberri, Mendillorri, Sarriguren, Agoitz eta Nafarroako Liburutegia, adibidez. Beste batzuk, aldiz, elkarte eta eragile desberdinek bultzatutakoak dira, Zaldiko Maldiko, Katakarak edo Civicanekoa, esate baterako. Ikasturtea hasita egon arren, edozein unetan eman daiteke izena haietako askotan parte hartzeko.



Josune, Kontxi, Mikel, Karlos eta Koldo, Arangurengo irakurketa taldeko kideetako batzuk.

komentatzen dugu dena” azaldu digute. Taldea irekia da eta parte hartu nahi duenak liburutegian bertan eman dezake izena edozein unetan.

Katakarak eta Zaldiko

Katakarak ere euskarazko lanak mintzagai hartzen dituen talde bat elkartzen da hilean behin. Aurtengo lehen hitzorduak dira:

urriaren 20an George Orwellen ‘1984’, azaroaren 17an Assata Shakur-en ‘Autobiografia bat’ eta abenduaren 15ean Irene Nemirovskiren ‘Suite Frantsesa’.

Zaldiko Maldiko elkartearen Irakurritz dibertitzen gara izeneko irakurle taldea abian jarri zuten aspaldian eta hilean behin biltzen dira Sagarario Aleman euskaltzainaren gidaritzapean.



ANE ESLAVA SERRANO / PERIODISTA Y EDITORA

Las editoras somos como las directoras de una charanga”



Después de cinco años trabajando en diferentes medios como Argia, Berria o Euskalerrria Irratia, Ane Eslava se ha sumergido en el mundo de la edición. Desde hace año y medio ella y la escritora Garazi Arrula son las editoras de Txalaparta, que este año cumple 35 años y lo celebra con la inauguración de su nueva sede y tienda en el número 63 de la calle Mayor de Pamplona.

Ze Berri?.- ¿Qué es lo que más te gusta del periodismo?

A.E.- El periodismo pausado, sin prisas. Ese tipo de periodismo que te permite analizar un tema y profundizar en él. También me gusta mucho hacer entrevistas largas y la relación que surge con las personas que estás entrevistando. También me gusta mucho la radio y me parece que tiene una magia especial. Hoy en día continúo mi relación con el periodismo a través del podcast feminista Berria FM que hago con Uxue Rey.

Z.B?.- ¿Cómo fue tu paso al mundo de la edición?

A.E.- Muy potente. El hasta entonces editor de Txalaparta Jon Jimenez se fue y me ofrecieron la posibilidad de ocupar su puesto. Dije que sí con mucho vértigo porque sabía que es un trabajo muy intenso, pero me lancé porque tenía muchas ganas de aprender. Me parece un trabajo muy hermoso y que tienes que ir aprendiendo en el día a día, porque aunque ya hay ciertos estudios específicos, hoy en día la experiencia profesional sigue siendo la base.

Z.B?.- ¿Cómo es este trabajo?

A.E.- Es muy variado. Gorka Arrese, editor de Susa durante muchos años, decía que la

labor del editor o editora es como la de quien dirige una orquesta, porque hay mil frentes que controlar para que la pieza suene bien. Nuestra editora Garazi Arrula ha transformado esa frase diciendo que más bien somos las directoras de una charanga, y me gusta esa definición.

Tenemos que decidir qué libros se editan, llevar a cabo la edición y también encargarnos de la promoción de los libros en medios de comunicación, foros especializados,

ferias... No nos aburrimos.

Z.B?.- ¿Cuáles son los criterios para decidir qué se publica y qué no bajo el sello de Txalaparta?

A.E.- La persona que edita no decide solo en base a sus gustos personales. Cada editorial tiene una historia y unos criterios determinados que hay que seguir.

Los nuestros son libros políticamente comprometidos, entendiendo la política en el sentido más amplio del término. Por ello publicamos muchos trabajos con temática variada. Desde el principio hemos editado ensayos, narrativa en euskera y castellano, y hoy en día también cómics, álbumes ilustrados y literatura infantil y juvenil. Un total de unos 40 libros cada año, en euskera y castellano, contando también las reediciones.

Z.B?.- Este año 35 aniversario y nueva sede...

A.E.- Ahora estamos un grupo bastante nuevo y entendemos que las editoriales tienen que responder a las necesidades de cada época. Por ello hemos decidido abrir una nueva sede en Pamplona, sin dejar la sede originaria de Tafalla, donde continuará el almacén principal. Entendemos que esta nueva ubicación nos permitirá seguir cerca físicamente de nuestra comunidad, ofrecerle un nuevo punto de encuentro y también interactuar con otros agentes dinamizadores, culturales y sociales.

Z.B?.- ¿Qué libros encontraremos en la tienda?

A.E.- En nuestras estanterías tenemos todos los editados por Txalaparta y algunos de otras editoriales, como hasta ahora venimos haciendo en nuestra página web.

EDITORE BATEN LANA



Nik betidanik irakurri izan dut, baina orain beste erritmo batean egin behar dut liburu asko jasotzen dugulako eta interesa pizten didan lan asko daudelako. Egun batzuetan editoreak etxean gelditzen gara lasaiago irakurri ahal izateko. Lan bat argitaratzea erabakitzen dugunean, iradokizunak egiten dizkiegu maiz idazleei eta hor negoziazio prozesu bat zabaltzen da. Batzuetan zaila suertatzen da, azken

finean egile batek berak sortutako lana, berarengandik sor dezakeen onena, ematen dizu eta hori oso material sentikorra da. Egile bati esan behar badiozu ez dugula argitaratu behar edo hainbat gauza aldatu behar direla, kontuz ibili behar duzu pertsona hori ez mintzeko. Gehienetan oso ongi onartzen dituzte aldaketak eta oso harreman politak sortzen dira. Horretan ere ikasten ari naiz.”



LEHIAKETA / CONCURSO

En este número hacemos referencia a un pueblo situado entre los valles de Arce, del que se desgajó en 1845, y de Aezkoa, que está formado por dos núcleos urbanos: el pueblo que le da nombre y el barrio de Olalde.

La respuesta al concurso del número 161 era:

LORCA

El ganador es:
Peio Beloki Yaben (Iruña)
ZORIONAK!



MIKEL BELASKO

Lorca

Desde hace años soy invitado cada primavera al valle de Yerri para dar una charla sobre la toponimia de una de sus localidades. En ellas se aborda el significado del nombre del valle y sus diecinueve concejos.

Algunos topónimos son transparentes como Villanueva/Hiriberri, otros permiten el lucimiento del ponente como Yerri/Deierri "la tierra de Deio" y unos pocos lo ponen en un brete por su aparente opacidad, como es el caso de Lorca. Lorca está enclavada en una zona donde la toponimia euskérica es mayoritaria -el 60% de sus topónimos está en euskera- pero, aunque su nombre no ha sufrido ningún cambio desde 1175, este no tiene explicación directa desde esta lengua. Es más, la existencia de una localidad homónima en Murcia y el apellido del inmortal poeta andaluz confieren un aire exótico al topónimo navarro. El topónimo murciano es también antiguo, pero igualmente enigmático, a pesar de haberse formulado sorprendentes etimologías relacionándolo con héroes de la guerra de Troya o batallas árabes. Caro Baroja estableció un puente entre ambas Lorcas relacionándolas con el topónimo antiguo de la actual Alfaro, Ilurcis, cuyo primer elemento se ha explicado como un compuesto de la voz ili -ciudad-. Ahora bien, la propuesta del historiador choca tanto con las dificultades fonéticas para relacionar nuestra Lorca con un compuesto de ili, como con las de tipo histórico, ya que aparentemente Lorca no puede presumir de ser una civitas romana documentada.



Lo cierto es que existió una segunda Lorca, llamada Lorkatxiki, y existió una Lorca antigua, llamada Lorkazarra, donde han aparecido vestigios de la edad del bronce, y donde está el paraje de Gazteluzarra 'el castillo viejo' inequívoco nombre de poblados de la edad del hierro. Dicho con otras palabras, hay una continuidad de población en Lorca desde hace 2500 años y sus habitantes son aún conscientes de esa rica historia como lo demuestran los topónimos Lorkazarra y Gazteluzarra. Así pues, ya no es descabellado pensar que el topónimo Lorca estuviese designando de forma genérica la existencia de una población en el lugar, y que lo hiciese desde hace 2000 años. La antigüedad del nombre explicaría lo difícil de su interpretación con los recursos del euskera actual. No hemos aclarado el significado, pero hemos avanzado en buena dirección.



Ezagutzen duzu toki hau? • ¿De qué lugar hablamos?

Moztu kupoi hau, bete eta postaz bidali edo zeberrri.eus web gunean dagoen galdetegia bete eta bidali urriaren 6 baino lehen. Recorta este cupón y envíalo por correo o rellena el formulario de la página web www.zeberri.eus antes del día 30 de noviembre.

Concurso ¿De qué lugar hablamos?
Concejo de Ustároz, 9-11 (trasera) 31016 • Pamplona / Iruña


Erantzuna / Respuesta:

Izen-abizenak • Nombre y apellidos

Herria • Población

Telefonoa • Teléfono

Saria: Bi pertsonentzako asteburuko egonaldia • El premio es un fin de semana para dos personas en el Hostal Itzalgikoborda.



Elizondoko plazatik 2 kilometrora gaude, zuhaitzez eta erreka batez inguratua, uraren gurguria ere entzun daitekeen toki paregabea. Hauxe da Itzalgikoborda, hostal bat asteburu lasaiaz gozatzeko edota otordu bat egin eta gero patxada ederrean mahaiaren iguruan egoteko. A dos kilómetros de Elizondo, rodeados de árboles y de una regata desde la que nos llega el murmullo del agua. Itzalgikoborda, un hostal donde disfrutar de un tranquilo fin de semana o de una comida con una agradable sobremesa.

Itzalgikoborda
Bº Berto.
31700 Elizondo/Navarra-Nafarroa
948581483
630154519
www.itzalgikoborda.com

El responsable del tratamiento de sus datos es HEDA Comunicación S.L., que tratará los datos incluidos en este cupón con la finalidad de realizar el sorteo. Usted tiene derecho al acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación del tratamiento de los datos y a presentar una reclamación ante la autoridad de control. Más información en www.aepd.es/reglamento/derechos/index.html

ENRIQUE DIEZ DE ULZURRUN SAGALÀ

La toponimia vasca de Murillo el Fruto

Hay quien asocia la lengua vasca exclusivamente con verdes valles repletos de caseríos, dominados por la niebla, donde crecen los helechos. Se trata de una visión sesgada que nada ha tenido que ver con la realidad histórica y actual del euskera, y Murillo el Fruto es un buen ejemplo de ello.

Bañada por el río Aragón, la localidad de Murillo el Fruto se encuentra en la Ribera de Navarra, a 68 kilómetros al sur de Pamplona. Es conocida, entre otras cosas, porque allí nació Raimundo Lanas, considerado el mejor jotero de Navarra. En los alrededores se sitúan Carcastillo, Santacara, Mélida y el Monasterio de la Oliva. Al norte están las tierras de Ujué, donde la toponimia vasca es mayoritaria.

Un documento encontrado hace unos años atestigua la numerosa presencia de topónimos vascos en este pueblo de la Ribera Alta. El documento data del siglo XIV y fue localizado en el Archivo General de Navarra, en Pamplona. En él se pueden leer los impuestos o pechas que pagaban sus habitantes. Los topónimos que aparecen en euskera son muy claros y comprensibles. Muchos de ellos se refieren a huertas y regadíos del pueblo.



Son nombres de lugares vinculados al río y al agua, tal y como es el paisaje de Murillo El Fruto: *Baratzetako hodia*, el canal o acequia que iba a las huertas. *Baratzebideta*, por ejemplo, equivale a decir camino de los huertos. *Baratzeberrrieta*, los huertos nuevos. *Erteko erregua*, algo así como arroyo del medio. *Uharteko hodia*, canal o acequia entre dos o ambas aguas. *Legazpea*, zona inferior a un sitio de gravas. *Areatzea*, era el arenal.

Hay más, como *Txorrota*, *Uarte*, *Ehuntzea*, *Garipentzuko zaldia*, *Aitzurieta*, *Areatzea*, *Baratzalzinea*, *Buztina*,...

Según los expertos, fue escrito por el notario de Olite Gil López de Sarasa hacia el año 1400, notario que también sabía hablar euskera.

Los estudiosos opinan, además, que la claridad de los topónimos prueba que todavía se hablaba la lengua vasca en aquella época en Murillo el Fruto. Es decir, que el euskera pervivió más de lo que se creía en esa zona de la Ribera Alta. Como es habitual, con la pérdida del euskera los topónimos vascos cambiaron y se desdibujaron.

En el mismo documento hay otro aspecto interesante desde el punto de vista lingüístico, dado que aparecen los mote de algunas personas de la localidad. Al alcalde le apodaban, Joan Biper, es decir, Pimiento. Vivía también una tal María Garizu o Trigosa. Un tal Per Arzeiz Luzea, es decir, el Largo; Salvador Ederra, o el Hermoso, y García Zalduna, es decir, García el Jinete o el Caballero. Todo ello testimonia que Murillo era un pueblo euskaldun camino ya del final de la Edad Media.

EmariAPP' EmariAPP mugikorretarako jolasak emakume erreferenteak gizarlean errotzea du helburu. Lehengo zein gaur egungo emakumeak ezagutarazi nahi ditu aplikazio honek. 5 pistarekin eta 90 segundoan, pantailan agertzen den emakumea nor den asmatu behar da. Zientzialariak, erizainak, margolariak, astronautak, matematikariak, medikuak, idazleak, zaintzaileak, kirolariak, borrokalariak... dira protagonistak.

Aplikazioa Kalaka enpresako Ilazki Gainzak eta Nerea Uriak garatu dute. 2018an kaleratu zuten liburuaren eta ondorengo mahai jokoaren ondotik dator aplikazio hau.

Euskarak ikusgarritasuna berreskuratu du Google bilaketetan. Googlek PUNTUEUS entzun du. PUNTUEUS Fundazioak euskara esparru digitalean lehen mailakoa izan dadin egiten du lan, eta azken hilabeteetan egindako ikerketa, lan eta hausnarketek emaitza positiboak ekarri dituzte.

PUNTUEUS Fundazioak uztailean arazoa mahaigaineratu ondoren, Googlek aldaketak aplikatu ditu bere algoritmoetan, eta, orain, euskarazko web edukiaren ikusgarritasuna nabarmen hobetu dela egiazta daiteke.

Algoritmoaren aldaketari esker, gaur egun Google bilaketetan euskarazko emaitzen %73 agertzen da lehen tokian, joan den uztailean %50 besterik ez zen bitartean. Ondorioz, euskara dagokion ikusgarritasuna berreskuratzen hasi da Google bilatzailearen emaitzetan.

'Mantangorri' webgunea martxan da. Berria egunkari larunbatero argitaratzen duen haurrentzako 'Mantangorri' gehigarria orain paperean ez ezik, mundu digitalean ere sareritzen da, irailaren amaieran martxan jarri zuten Berria.eus/mantangorri webgunearen bidez.

Bertan ikus daitezke atal nagusiak: gaiak, ipuinak, denborapasak, Belardoren komikia, azoka eta bestelakoak. Horien gainean klik eginda murgildu daitezke irakurleak edukietan; hartaz, gehigarrian argitaratu ohi diren erreportaje eta elkarrizketa interesgarriak webean ere irakurri ahal dira. Tartean izanen dira elkarrizketak eta bideoak eta, honetaz gain, Irrien Lagunak taldekoek proposatzen dituzten eskulanak, esperimenduak eta bitxikeriak egonen dira eskuragarri.

Egunean Behin jokoaren 13. denboraldia abian da.

Urriaren 2an hasi zen Egunean Behin jokoaren denboraldi berria eta abenduaren 10era arte luzatuko da. Denboraldi honetako babesle nagusia Primeran da, EITBK sarean jarri berri duen streaming plataforma euskalduna.

Egunean Behin tribial estiloko euskarazko galdera-erantzunen joko da, CodeSyntax enpresak garatua. Parte hartzaileek egunero partida bakarra jokatuzeko aukera dute. 10 galdera erantzun behar dituzte, ahalik eta azkarraren.

2019an abiatu zen joko hau. Aurten izandako bi denboraldietan 50.000 jokalaririk inguru izan dira astero, eta partida kopurua 40 milioitara iritsi da, 400 milioi galderari erantzuna emanez.

Primeran lehen euskarazko streaming plataforma iritsi da. Bertan eskainitako euskarazko eduki interesgarrienei erreparatuta 'Irabazi arte' telesaila nabarmendu

behar da. Kirola eta, honen bitartez, nesken artean sareak egiteko gaitasuna eta garrantzia dira telesail honen ardatz nagusiak.

MIREN MINDEGIA PETRIRENA


Beharra bazegoen eta, azkenean, iritsi da. Dagoeneko martxan dago lehenengo euskarazko streaming plataforma. EiTB-ren azken urteotako apustu handiena da Primeran, eta abiatu denetik plataformara igo diren lehenengo ekoizpenak ikusteko aukera izan dugu. Denborak esango du, aditzera eman den bezala, euskarazko ekoizpenen aldeko apustua ere argia izango den edo asmo kontu batean soilik geldituko den.

Oraingoz, bertan aurkitu daitezkeen gazte eta ez hain gazteentzako euskarazko eduki interesgarrienei erreparatu diezaiekegu. Horien artean dago, zalantzarik gabe, 'Irabazi arte' telesaila, 2021ean Donostiako Zinemaldian aurkeztu ondoren 2022ko hasieran estreinatu zena. Plataforman, telesail arrakastatsuen lehenengo denboraldi osoa aurkitu daiteke eta laster estreinatuko da bigarrena.

Institutuko ikasleei zuzendua, herri txiki bateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean girotua dago eta azken boladan denen ahotan dabilen gai bati heltzen dio, hain zuzen ere: emakumezkoen kirolari, eta kasu honetan, zehazkiago, nerabezaro betean dauden nesken kirolari. Abiapuntutik argi dago zein izango den trama nagusia: Arene beste herri batetik berriki etorri den neska futbolzalea da, eta bere helburua institutu berrian nesken futbol talde bat osatzera izango da.

Julene Aranburu eta Maite Duque dira Javier García de Vicuña zuzendutako telesailaren gidolariak, Pausoka ekoiztetxearen beste telesail oso arrakastatsu baten talde berdina: 'Golazen' musikalarena. Aranburuk telesailaren aurkezpenean argitu zuen moduan, honen helburua topiko batzuk desmuntatzea ere bada: "Sortzaileen eta ikusleen heldutasuna aurreikusten dugu. Institutuko pertsonaien arketipoak, gaiztoa, ikasle onarena, gelako guay-ena eta ez hain guay-ena, lausotu edo gainditu egin dira." Aranburuk 'Sex education' jartzen du horren eredutzat, Netflixeko telesail ikusienerako bat, nerabezaroa eta sexualitatearen gaiari modu irekian eta erreparorik gabe heltzen dio.

Kasu honetan, alta, ez da sexualitatea gai nagusia, baizik eta kirola eta, honen bitartez, nesken artean sareak egiteko gaitasuna eta garrantzia: "Futbol talde bat, azkenean, familia moduko bat da, aukeratzen ez duzuna. Futbolearen aritzea da elkartzen dituen arrazoi bakarra, ez dute aurretik elkar ezagutzen, ez dira lagunak. Baina hel-



IRABAZI ARTE

futbolearen matxismoa deseraikitzen

buru berdin baten bueltan elkartzen dira. Ikuspegi feminista batetik, elkarrekin indartsuagoak garenaren ideiarekin jokatu dugu".

Lehenengo denboraldian hau izan da aktore taldea: Sua Enparantza, Iker Galarza, José Ramón Soroz, Ane Iturrate, Nahia Sillero, Ane Garmendia, Ainhoa Azpitarte, Joana Garitano,

Aritz Basterra, Ibai Ugarte, Ander Rovira, Álvaro Garayalde, Patricia Urrutia, Tessa Andonegi eta Eriz Alberdi. Bigarren denboraldian hiru pertsonaia berri sartuko dira jokoan: Angela Lopez, Alaitzen paperean; Ugaitz Amundarain, Keparen paperean; eta Iñigo Gastesi, Urkoren paperean.

ERREALITATEAREN ISLA

Telesailak inguratzen gaituen errealitate bat nabarmentzen du: futbolearen matxismoa oso sustraituta dago. Telesailaren kasuan ez da zuzenean atek ixten dituen matxismo bat, neskei futbolearen aritzea eragotziko diena, baizik eta aitakeriatik edaten duen matxismo bat, kirola egitea ahalbidetu arren euren


lorpenei balioa kenduko diena neskek mutilen futbolearen itzalpean mantenduz. Egiten utziko diete, laguntzarik eman gabe. Huts egiten utziko diete, gai ez direla esan ahal izateko. Kirolaren baitan oraindik deseraikitze eta eraikitze asko dagoela nabarmentzen duen telesail bat dugu, beraz, 'Irabazi arte'.

PLAZARA ATERA BERRIA • NOVEDADES DE LIBROS Y DISCOS**LIBURUAK / LIBROS****Haize leizean**

Elise Dilet eta Antton Hariñordoki
Elkar

Haize nerabe bakartia da, amarekin bizi da baina azken hau zainetarik eri da, eta hori zaila da alabarentzat. Musikan trebe da Haize, eta etxetik urrun den musika eskola famatu batean sartzeko proposamena heldu zaio. Hautu bat egin behar du, ezezagunera jauzi erraldoia egin ala bere

egunerokotasunean egon, amaren ondoan. Behin, kolegioarekin, lzturitzeko leizeetara doa bisita baten egitera eta han okre gorrizko arrasto baten gainean eskua pausatu eta trenputxartuko da. Madelaine aroko neska gazte baten baitan gorputzuko da Haize, eta erritu inizatikoak biziko ditu tribuaren baitan. Nolako abenturak gertatuko zaizkio haiekin? Historiaurreko bidaia horrek nola lagunduko du bere buruaren ezagutzen?

**Transgresioa irakasgai. Hezkuntza askatasunaren praktika gisa**

Bell Hooks

Itzultzailea: Amaia Apalauza Olo
Katakarak

Hezkuntza krisi larrian dago. Ikasleek, askotan, ez dute ikasi nahi, eta irakasleek ere ez dute irakatsi

nahi. Herralde honen historian sekula ez bezala, gure gizartearen irakaspraktikak sortu dituzten aurreiritziei aurre egin behar diete hezitzaileek, baita ezagutzarako modu berriak eta ezagutza partekatzekeo bestelako estrategia batzuk asmatu ere. Pentsalari kritikoa aurrerakoiek eta kritika sozialean jarduten dutenek irakaskuntza funtsezko aferatzen hartzen ez badute, nekez helduko diogu krisi horri.

**Sortze berri bat indarkeria obstetrikorik gabea**

Estitxu Fernandez Maritxalar
Txalaparta

Aldagai kultural, ekonomiko eta egiturazkoek erakitzen dute indarkeria obstetrikoa; emakumeen haurdunaldi, erditze eta erdiondoan osasun-sistemako profesionalak emakumeari edota umeari

ematen dioten tratu txarraz ari gara, eta ondorio fisikoak eta psikologikoak eragiten ditu. Ederki kabitzen da, beraz, patriarkatuaren baitan. Osasun-arloko adituak pazientearen hobe beharrez aritzen dira gehiengutan, baina ez beti.

**Haragizko erreformak**

Mari Luz Esteban
Pamiela

“Mari Luz Estebanek poema-bilduma guztietan harreman-sareetan arakatu du, gutasunak zein nitasunak gorputzean elkarrekiko harremanek, afektuek eta pentsamenduek zer-nolako eragina duten poetikoki adieraziz. Hirugarren bilduma honetan, genealogia geografikoetan, kulturaletan, sozialetan zein linguistikoetan arakatu du, askotariko adarkatzeaz osaturiko genealogia afektibo eta politikoak poetikoki gorputzeko. Lehen atalean, oroitzen txatal poetikoak osatzen ditu, haurtzaroko geografia afektiboetan arakatu.” (Iratxe Retolaza)

MIGEL ANJEL ASIAIN “OSIO”

Profesor jubilado y miembro de la Asociación Galtzagorri de Literatura Infantil y Juvenil

Zubizarreta, Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil

De vez en cuando, en este pequeño mundo que es la literatura infantil y juvenil en euskera se dan sorpresas agradables que, aunque sean esperables como los cumpleaños, nos llenan de alegría. Este mes de septiembre nos han dado una: el premio de literatura infantil y juvenil español ha recaído en un libro en euskera: ‘Zerria’ (en navarro: El cuto), un libro de Patxi Zubizarreta.



Este premio se concede al mejor libro publicado en el año anterior en cualquiera de las lenguas del estado. Desde su creación en 1978 sólo se había concedido a dos libros en euskera: ‘Abecedario Titirijario’ de Juan Kruz Igerabide, y ‘Krokodilo bat ohe azpian’ de Mariasun Landa. ‘Zerria’ es un libro para jóvenes y esto también es algo especial, ya que en la LIJ en euskera la mayoría de la producción se centra en los primeros segmentos de edad (0-5 / 6-9 años).

‘Zerria’ nos propone un viaje que comienza en los glaciares de los Alpes y que nos va trasladando primero a Zuberoa (la provincia del otro lado de los Pirineos más pequeña y más aislada) y después a París. En este periplo la protagonista del relato, Bereket, nos lleva a través de su investigación a viajar también en el tiempo, desde finales del siglo XIX hasta nuestros días. Y también nos propone un viaje a la condición humana, a lo que somos y a lo que no... en suma, a los temas importantes de nuestra vida. Y todo ello con la prosa poética que caracteriza a Patxi Zubizarreta, con las ilustraciones magníficas de Antton Olariaga y una buena edición de la editorial Erein.

En definitiva, un buen libro para jóvenes a partir de 14 años (y para quienes seguimos siendo jóvenes de corazón). Felicidades Patxi, felicidades para la literatura juvenil y felicidades para todas las personas que se acerquen a esta obra.

DISKOAK / DISCOS**‘Naturarekin dantzan’**

Ene Kantak

“Natura ardatz hartuta, natura eta berarekin ikasteko ematen dizkigun aukerak abesti bilakatu ditugu: arnas garbia, lehen sektorearekin lotutako bizitza, txangoa, txaluparen gainean... Eta ezin dira animaliak falta: arkakusoa, olagarroa edo enara esaterako.

17 abesti horietan sorpresak ere aurkituko dituzu: gau beltzerako kanta, bazkaltzera joateko deia, irudimenari egindakoa, magoei eskainitakoa, errespetua lantzekoa...

**‘Errozabal, 778’**

Beltxaren taldea

Talde hau 2008an sortu zuten Lina Anduezak eta Ana Telletxeak kantu zaharrak a capella emateko asmoarekin. 2021ean musikari berriak batu zitzaizkien: Arkaitz Ibarra, Garbiñe Leiza, Maddi Agirre, Mikel Petrirena eta Mikel Ruano. Tradiziozko musikaren inguruan dabilta denak ere

beren ibilbide musikaletan, eta hirugarrenez, Xabier Irujoen ekimen bati heldu diote.

‘Errozabal, 778’ diskoan hamar kantu bildu dituzte. Kantuen doinu eta hitzak Xabier Irujo historia-lariarenak dira eta musikaren konposizio eta moldaketak, berriz, Mikel Petrirenarenak.

BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK,

TEKNOLOGIARI
EUSKARAZ
IRAKASTEKO



gaitu.eus

Erronka berri bat dugu euskaldunok.
Teknologiari eta adimen artifizialari euskara irakatsi behar diegu.
Eta horretarako, milaka ahots behar ditugu.
Mundu digitalean ere euskaraz bizi ahal gaitezen.

Sartu webgunean eta eman zure ahotsa.